



HAL
open science

Iparaldeko olerkaritza

Jean Haritschelhar

► **To cite this version:**

| Jean Haritschelhar. Iparaldeko olerkaritza. Lapurdum, 2009, 23, pp.199-218. artxibo-00660870

HAL Id: artxibo-00660870

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00660870>

Submitted on 17 Jan 2012

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

IPARRALDEKO OLERKARITZA

Jean HARITSCHELHAR
euskaltzainburu obia

HASTAPENAK

Hoskidetasuna izan da, dirudianez, aspaldian, beti danik ez erraiteko, jendearen lillura, izan dadien jende ikasia ala eskolarik gabea. Hor dago, orai danik bizi dena, ditxoa, Xalbador bertsulariak hain polliki aipatu duena bere *Odolaren mintzoan*. Urepeldar bati galdegin zion Xalbadorrek: « *Errazu Piarre, pertsulariak dudarik gabe gazte gaztetik izaiten du jitea?* »

Harek ihardetsi: «*Ba eta zabartzean joaitea*».

Ditxolari arraroa zitekeen delako Piarre hori ez baitzitzaion aski hoskidetasuna aditz izenaren bukaerak ematen ziona “tea”, baliatu baitzituen, denbora berean, hitzen arteko aurkatasuna : gazte/zahar eta jin/joan.

Oroit naiz ere Baigorriko alkate nintzelarik heldu zitzaidala, meza aintzin, aspaldiko adiskide bat eta irria ezpainetan igortzen zidala bere agurra : « *Egun on gure Jaun mera, egizu otoi gure afera* ». Gehienetan ditxolaritik sortzen da bertsularia edo kantu egilea eta hola sartzen da literatura herrikoian.

Hoskidetasun laburrena asonantzian datza, bokal bakarrarekin eta, jadanik landuagoa bi bokalen berdintasuna baliatuz. Hori gertatzen da edozein literaturatan. Adibidez, hartzen balinbadugu frantses literaturaren lehenbiziko lekukoa *La Chanson de Roland* deritzana, ikus daiteke bilduak direla neurtitzak “laisse” deitzen den estrofa berezi batean. “Laisse” bakoitzak gai bakar bat azaltzen du eta neurtitzak bururatzen dira asonantzia berarekin, haren luzetasuna ez dela batere berdina kantu epikoan, gaia delarik egiazko nagusia. Hona, adibidez, delako kantuan, Olivier, Roland-en adiskidearen heriotzea :

*Olivier sent qu'il est a mort nasfret,
De lui venger ja mais ne li ert sez.
En la grant presse or i fiert cume ber,
Trenchet ces hanstes e cez escuz buclers
E piez e poinz e seles e costez,
Ki lui veïst Sarrazins desmembrez,
Un mort sur altre getez,
De bon vassal li poüst remembrez,
L'enseigne Carle n'i volt mie ublier :
« Monjoie ! » escriet e haltement e cler,
Rollant apelet, son ami e son per :
« Sire compaign, a mei car vus justez !
A grant dolor ermes hoi desevez. »*

Argi eta garbi dago neurtitzen luzetasuna hamar silabatakoa dela bi zatitan emana, etena daukatela laugarren silaban (4+6) eta asonantziarekin bururatzten dela, erran nahi baita, kasu honetan “e” bokal bakarrarekin, ondotik datozen kontsonanteak (t, z, r, s) baliorik gabeak direla.

Bertze adibide bat hartuz espainiol literaturan hautatzen dut *Cantar de Mio Cid* delakoan, bere lagunak bildurik Bivar-etik herbestera doala :

*Alli pienssan de aguijar, alli sueltan las riendas,
A la exida de Bivar, ovieron la corneja diestra,
E entrando a Burgos oviéron la siniestra.
Meçió mio Çid los ombros y engrameó la tiesta :
« albricia, Alvar Fáñez, ca echados somos de tierra !
mas a grand ondra tornaremos a Castiella. »*

Hemen asonantzia bi bokalekin egina da : alde batetik “ie” diptongoa eta bertzetik “a” (ie/a, beraz) eta *Chanson de Roland*-en baitan bezala pluralaren marka “s” lehenbiziko neurtitzean ez dela konda.

Gauza berbera gertatzen da euskal literaturan. Etxepare, lehen idazlearen obra irakurtzen delarik. Nahiz ordukotz euskal kantua bertsutan egina balinbazen, bertsuen luzetasuna neurtua zen, halere Etxeparek gai berezi baten hedatzeko lau neurtitzetik badoa bost, sei eta berdin zazpi neurtitzetara. “*Judizio jenerala*” deritzan olerkia hasten da bost neurtitzeko estrofa batekin bainan gehienak lau puntukoak dira salbu 4.a bost neurtitzekoa, 10.a sei neurtitzekoa eta berdin 13.a eta 14.a.

Har dezagun, adibidez, hamargarrena :

*Anhiz gauça vehar dira iudicio handian :
Iugeac duyen potestate parte ororen gainian ;
Demandantac erran dezan vere causa eguiaz,*

*Bayetare defendentac bere defensionia ;
Porogatu datenian nork duqueyen çuçena,
Sentenciaz eman deçan iugiak nori veria.*

Estrofa horretan Etxeparek erakusten du zer den harentzat azken judizioa. Horretarako baliatzen ditu lurreko auzietan agertzen diren jendeak, zuzenbide hiztegia erabiltzen hala nola “demandantak” edo “defendantak”.

Bakoitzak badu hitza eta ikusiz « *anhiz gauça behar direla iudicio handian* » ez da dudarik laukoa laburregia zitzaiola Etxepareri eta sei neurtitzatan garatzeko jujamenduaz duen ikus-moldea.

Aldiz, azaltzen dituelarik mundu hontako handi mandiak, hartuz erretrorikaren “Ubi sunt” famatua, lau punduko bertsua egokia izanen zaio :

*Non dirate egun hartan hebengo iaun erreguiak
Duque, conde, marques, çaldun eta verce iaun nobliac
Eta hayen armadaco guiçon sendoen valentiac ?
Ordu hartan valiaco guti haien potenciac.*

*Iurista eta theologo, poeta eta doctoriac,
Procurador, adbocatu, iuge eta notariac :*

.....
.....

*Ayta sayndu, cardinale, aphez eta prelatuyac
Berez eta ardi oroz eman vehar han conduya.*

.....
.....

Bertze olerki batzuetan aurki daiteke olerkariaren askatasun berbera, hala nola “*Amorosen gatziguya*”, “*Ezconduyen coplac*”, “*Amoros gelosia*”, “*Potaren galdacia*”, eta, bereziki, “*Mossen Bernat Echaparere cantuya*”. Azken olerki honetan aipatzen dituelarik “*faltsu testimoniak*” edo mintzatzen zaiolarik Jainkoari, laukotik badoa sei neurtitzeko bertsuetara.

Bada, beraz, Etxepareren baitan epopeia idazleak baliatzen zuen askatasuna, erabiltzen duela hamabortz silaba daukan neurtitza eta asonantzia neurtitz bukaeran. Gorago azaldu dudana *Iudizio ieneraleko* bertsua adibide gisa hartuz, argi dago “ia” dela nagusitzen den asonantzia, baina “a” bakarririk onar daitekela “çuçena” hitzarekin bukatzen duelarik bosgarren neurtitza (handian, gainian, eguiaz, defensionia, çuçena, veria) eta asonantziaren eskui-nean dagoen kontsonantea balio gabekoa dela.

Zer nahi gisaz, azalez bederen, Etxepareren metrikak ahaidetasun handia dauka epikako metrikarekin. Segur neurtitzen luzetasuna ez da bera, bakoitzak, frantsesak, espainiolak edo euskaldunak baduela berea, baina “laisse” edo estrofeak asonantzia bakarra onartzen dute.

Egia da aski goiz olerkaritzak utzi duela asonantzia, nahiz atxiki duen luzaz espainiol erromantzeetan, hobetsiz errima, bainan asonantziaren ohidura zaharrak bizi luzea ukanen du, bereziki kantu herrikoietan. Bere *Romancero populaire de la France* G. Doncieux-ek gogorazten du Tiersot ikertzailearen iritzia :

« *Sur le déclin du Moyen-Âge, ajoutant à l'identité de la tonique celle de la consonne qui suit, on a fait de l'assonance la rime ; les rimeurs de la Renaissance et de nouveau les Romantiques raffinèrent davantage en recherchant aussi l'identité de la consonne précédente (consonne d'appui) ; mais les trouvères de la plus belle époque se contentaient de l'assonance et, naturellement, le peuple en est resté à cette conception rudimentaire. Il assone et ne rime pas.* »

Holako iritziaren egiaztatzeko aski da bilatzea gure kantu herrikoietan eta XIX. mendean hor daukagu lekuko Etxahun-Barkoxe:

*Harri'giliren adreta
Harek badaki zer phentsa
Mürria gaxki egin eta erdiruak lohiz thapa
Etxia lürtatü denian, harrien gaxtuak falta. (Ofizialenak)*

Ahapaldi honetan “a” bokala da asonantzia bakarra eta holako kasuak maiz aurkituko dira Etxahunen kantuetan.

Gehiago dena, kontsonante bat ager daiteke asonantziaren eskuinean eta epikan bezala balio gabekoa da:

*Bethe nutinin seiac ama ene engrat
Hari plazer eguiten, ni ari abalas
Eta harec ordari aurhider ophilac
Apairietan ere hobe hayen pheçac
Uduri ni haurretan, nundiala bastart.
(Bizitziaren khantoria)*

Hona, beraz, nola asonantziaren ohidura zaharrak segitzen duen euskal literatura herrikoian XIX. menderaino bederen.

Bainan, jadanik Erdi Aroan, kontsonantea sartzen da neurtitzaren bukeran eta sortzen da errima, bai Frantzian, direla lekuko Chrétien de Troyes-en obra edo “fabliaux”, alegia gisakoak, antzerkiak hala nola “miracles” eta “mystères” deritzanak, ahantzi gabe Rutebeuf, Jean de Meung, Eustache Deschamps, Charles d’Orléans eta hain ezagutua den François Villon, bai Espainian, Gonzalo de Berceo eta Hita-ko artzapeza, nahiz beste manera batez jokutzen diren sortuz “cuaderna vía” deritzana, lau neurtitzez eginika-ko estrofa errima bakarrekoa. Aldatzen dute epikako metrika, hautatzen alexandrino deitzen den neurtitza eta estrofa berdina olerki osoan.

Frantzian bezala bertze olerkari batzuk utziko dute “cuaderna vía” delakoa eta jostatuko dira neurtitz laburragoak landuz, hala nola Santillanako markesak bere “serranillas” deiturikako olerkietan :

*En un verde prado
de rosas y flores,
guardando ganado
con otros pastores,
la ví tan graciosa
que apenas creyera
que fuese vaquera
de la Finojosa*

gurutzatzen dituela errimak.

Berantago, jadanik XV. mendean Jorge Manrique-k eskainiko du estrofa berezia aldizkatuz zortzi silabako neurtitzak lau silabakoekin, bere aitaren ohoretan.

Denbora berean erromantzeek badute beren fama, bereziki jende xeheen artean kantatuak edo erranak, ikasiak eta errepikatuak, atxikitzen dutelarik epikak zuen neurtitza (bana bertze 16 silabakoa) bainan zatituz eta bultzatuz 8 silabako neurtitza, atxikitzen zutela ere asonantzia bigarren zatian bakarrik.

Beraz baditugu bi ikus-molde Espainiako olerkigintzan, bat tradizionala asonantziarekin bertzea modernagoa errimarekin.

IPARRALDEKO “MESTER DE CLERECÍA”

Aski nahasia da XVI. mendea Frantzian eta Nafarroako erresuma askatuan. Alabainan, protestanten eta katolikoaren arteko borrokak nabari dira Frantzian, edo gerletan edo San Bartolome gaueko abrekerietan. Giro berbera ezagutzen da Nafarroako erresuman, Albreteko Juana erregina protestant bilakatzen delarik. Azkenean Juana erreginaren semea, Henrike III.a, heltzen delarik Frantziako tronura (Parisek meza bat balio zuela) eta Henrike IV.a titulua hartzen duelarik ezitzen da giroa, bereziki 1598an “Edit de Nantes” delakoari esker.

Anartean, Trento-ko kontzilioak lege berrien bitartez hasten du bere barneko erreforma (1545-1565) bereganatu nahian Elizatik ihes egin zutenak. Euskal Herrian XVII. mendean hasten da Elizak amesten duen aldaketa, zortzarrez bortizki De Lancre-kin Lapurdiko zenbait herritan errez emazte ala gizon “sorginak” omen, eta eztekiago Etxauz Baionako apezpikuarekin erai-

kiarazi zuelarik Ziburun “Récollets” komentua, etxe horretan bilduko baitira, hain zuzen deitzen dudan “Iparraldeko mester de clerecía”, Ziburuko Etxeberri, Haranburu, Argainaratz eta bertze, pentsatuz ere bazuketela Axular Sarako erretoraren bisita.

Bere *Manual debozinezkoan*, euskarazko bertsutan egina, Joanes Etxeberri Ziburukoak erabiltzen ditu 15 silabako neurtitzak Etxeparek bezala, bi zatitan emanak (8+7) etena zortzigarren silaban, errima parekatuaz bukatzen dituela neurtitzak (aa-bb-cc...):

*Eskaldunen ospea da lur guztira hedatzen,
Eta itsasturi ontzat munduak tu laudatzen,
Ezen hain behera eztu Ozeanak ondarra,
Nondik athera beruna eztezaten legarra.
Eta eztu urbazterrik erresakak bezatzen,
Norat bidea xuxenki ez baitute aurkhitzen.*

.....

Noelak (1631) aipatzekotan itzultzen da ohidura zaharrera nahiz enpleatzen duen errima eta ez asonantzia. Kurioski, ahapaldi bakoitzak lau neurtitz dauzka, zazpi silabakoak, errima agertzen dela bigarren eta laugarren neurtitzetan, bertze biek errimarik gabekoak direlarik, erromantzearen idurikoak. Aldiz bigarren ahapaldian (abab) egitura dauka:

*Oi Eguberri gaua,
Bozkariozko gaua :
Alegeratzen duzu
Bihotzean kristaua.*

*Mundu guzia duzu
Zorionez bethetzen :
Zergaitik baitiozu
Salbatzailea ekhartzen.*

Bide beretik doa Argainaratz aldizkatuz zortzi silabako neurtitza zazpi-koarekin errima gurutzatuekin *Devoten Breviarioan* :

*Tenpestak sesitu gaitu,
Galdu gara guziak,
Faboratzen ezpaigaitu,
Jauna, zure graziak.*

*Sepulturak dakuskigu,
Itsasoan barrena,
Begietan hurbil dugu
Haratzeko orena.*

Ez du bertzerik egiten Joanes Haranburuk nahiz ez dituen errimak gurutzatzen, bigarren eta laugarren neurtitzak bakarrik direla errimadunak, Harizmendi Haranburu bezala jokatzeko delarik *Ama Virginaren hirur officioac* deitzen den liburuan.

Berantago Gazteluzar jesuitak, hau ere ziburutarra, *Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguitemo necessario direnac* liburuan aldizkatzen ditu bederatzita eta zortzi silabako neurtitzak estrofa bakoitzean bigarrenak eta laugarrenak bakarrik dauzkatela errima :

*Zer espantu handi dakusat
Ah ! Jainko guziz maitea,
Zer aire dibinok darama
Lohiolako semea ?*

Hau da Iparraldeko mester de clerecia-k sortzen duen aldaketa olerkigintzan.

OIHENART

Iparraldeko mester de clerecia-k bertso gintzan egin duen aldaketaren ondotik heldu da egiazko iraultza Oihenart legegizonarekin. Gizon jakintsuna, bertze hizkuntzak eta literaturak ezagutzen dituen, legelari gain historialari bikain eta olerkari aparta da.

Aro berri batean sartzen da Oihenartekin euskal olerkaritza. Harentzat errimak luzea izan behar du, bi silaba hartzen dituela edo, den gutienik silaba bat eta erdi. Adibidez :

*Erranen duta ? ahal dezaket,
Egia dena bezala,
Zu begistatuz geroz laket
Zu bezi ehor etzantala.*

Aro berria, dudarik gabe, baliatzen dituela bi hitz errima luzearen lortzeko :

*Non ere, noreki ere bainiz,
Pena dut zutan pentsatzez ;
Hal'ere, hanbat neur'etsai niz,
Laket niz hortan penatzez.*

Neurtitz guziak errimadunak izanez, estrofa bakoitzean baliatzen ditu ahaltsun guziak : parekatuz, gurutzatuz, besarkatuz.

Errima parekatuak (aa bb cc...) zazpi olerkitan aurki daitezke :

*Nik eztut ehor maite zu beizi,
Zuk zeren nahi nuzu iretzi ?
Engoitik ordu zinuke hontu,
Eta nizaz eduki kontu.*

Errima gurutzatuak (abab) lau olerkitan :

*Etzintezkea jagoiti unba
Ene hain gaizki tratatzez ?
Beti zuzaz ezin enzuna
Lan duketa deitoratzez ?*

Errima besarkatuak (ab ba cd dc) :

*Berritzen ar'iz, xuria,
Nitan, egun guziez,
Noizten begiez
Egin erautan zauria ;
Et'ene bihotz gaxoak
Higanik, maita sari,
Herskailu ordari,
Zitin tragasa-xiloak.*

Gustatzen zaio ere nahastea estrofa berean errima gurutzatuak eta parekatuak (ab ab cc) :

*Aspaldi neure gogara,
Libertatez biz'izanik,
Orai dakusat harzara
Neure buru'atzamanik,
Gotor, eta gor izatez
Galdu nahi n'aien batez.*

Bai eta ere errima parekatuak eta besarkatuak (aa bc cb) :

*Margarita,
Badaidita
Othe huts zin egitez,
Begiz urdin
Bezain gordin
Zarela zur'egitez ?*

Neurtitzari dagokionez aurki daitezke Oihenarten olerkietan hanitz neurtitz mota. Ttipiena, lau silabakoa, badoa zazpi silabakoarekin :

*Nik zupertuz,
Badut gertuz
Maitazarre zugana,
Zer profeytu,
Balin peitu
Bazara zu nigana ?*

Bost silabakoa neurtitza ezkontzen du zortzi silabakoarekin :

*Gauik egunik
Eztinat hunik,
Hireki ezpaniz Argia ;
Hireki ezpainiz
Itsu hutsa niz
Zeren baihiz en'argia.*

Zortzi silabako neurtitza derabila sei neurtitzeko estrofan :

*Erran baderaukat ezi
Oro harena nizala,
Nehor ere, hura bezi,
Onhetsirik eztudala
Bana horregatik hura
Ezta nizaz arren gura.*

Baliatzen ditu ere zazpi silabako neurtitzak ezkontzen dituela zortzikoe-kin (8-7-8-7...). Halaber nahasten ditu bederatzi silabako neurtitzak zortzikoe-kin (9-8-9-8...) eta ere hamar silabakoa bederatzikoarekin, gutitan holakorik gertatzen baita olerkietan :

*Batzutan, luzez, luzez otoituz,
Zure bihoz gogorra goithuz,
Norabait jitez hitz badidazu,
Hor ere ger'eztadukazu.*

Eta azkenean hamabi silabako neurtitzak erabiltzen ditu olerki bakar batean badoatzila zortzikoeekin :

*Laur urte du, zuri beti jarraikitez,
Higatzen naizela, bai zerbitzu egitez
Ezteiari gertatzea
D'auherretan hingatzea.*

Errima luzeak, landuak noski, olerkariaren nahia halakoa baita, jostatzen dela haiekin parekatuz, gurutzatuz edo besarkatuz, neurtitzak luzetasunez osoki ezberdinak lau silabatik hamabiraino, horiek guzietan sortzen ditu Oihenartek estrofa berri batzu sekulan erabiliak izan ez direnak euskal litera-

turan. Adibide gisa hona “*Eguberri koplak*” deritzan olerkian derabilana (8-4-7-8-4-7) :

*Zerik gogatu izan baita
Zeruko aita
Gure berberostera,
Seme bakoitza hartako
Saritako
Igorri du lurrera.*

Dirudianez ere Oihenart izan da “hamalaurkuna” (hala deitzen du sone-toa) sartu duen euskal literaturan lehen olerkaria, segituz frantses eredu-a hamabi silabako neurtitzekin aldizkatuz errima luzeak lau lerroko bi ahapaldi eta hiruko bi ahapalditan (abba-abba-ccd-ede). Egia da ongi ezagutzen zituela, bai Ronsard eta bai du Bellay.

Oihenartentzat neurtitz luzeena hamabi silabakoa da ikusi dugun bezala, hau baita frantses literaturan neurtitz klasikoa. Hortakotz gutiesten du Etxeparek erabiltzen zuen hamabost silabako neurtitza. Bere *L'art poétique basque indiquée dans Une lettre écrite a Un curé du pays de Labourt au mois de mai 1665* hauxe dio : « *Ce sont tous de Vers de quinze syllabes dont nous ne trouverons point d'exemple parmi les ouvrages des poètes françois, Italiens et Espagnols (chez lesquels les plus longs vers sont les alexandrins féminins contenant treize syllabes) et parmi les Latins encore moins* ». Dударik gabe jorrazten ditu euskal olerkariak hasiz Etxeparerekin eta segituz Etxegaray, Logras, Etxeberri Ziburukoarekin ; Haranburu da bakarra onartzen duena sartzen baita bere estetikan, aldizkatuz deitzen dituen neurtitz femeninoak eta neurtitz “glissants”, erran nahi baita “esdrujuloak” espainolez. Etsenpluztat emaiten du :

*Utçaçu Iauna Colera
Ene mehaxatzeco
Ecen liçate sobera
Ene gastigazeco.*

Etxepare jorrazten du bereziki, aipatuz haren amodiozko kantuak, erran-
nez « *de Vers d'amour assés mal seans a Un Ecclesiastique, Et surtout a Un curé ayant charge dames* ». Horrekin erakusten du XVII. mendeko gizona dela, kontraerreformakoa.

Nahiz ez duen maite hamabost silabako neurtitza, are gutiago errima edo asonantzia bakarreko bertsa, halere ohartzen da badela euskaldunen artean ahapaldi berezi bat aipatzen duelarik kantu zahar bat : “*Andr'Emili andre gora*” eta bukatzen du idatziz : « *Cette façon de rimer est gentile et l'Usage en doit estre conservé* ». Hitza hitz, Oihenarten olerkien artean badira lau hola-

koak hiru neurtitz daukatenak : bi labur eta luze bat, baina ez berdin neurtuak : « *Hanbat nago penetan* » laueterik lehenak, « *Aspaldian nabila* », bigarrenak, « *Joanaren betheginzarrea* », hirugarrenak neurri bera dute (7-7-7+7) ; aldiz, « *Laur karbarien eresia* » deitzen den olerkiak zortzi silabarekin eginda da (8-8-8+8).

Ez dakit nola irakurri duen Etxepare ez baita ohartu bertzeen artean bazi-rela bi koplaz zahar : bat « *Amorez errequericia* », behar bada bi lerrotan idatzia eta inprimatua zelakotz, baina lehenbiziko lerroan argi dago badela barneko errima eta idatz daitekela hiru lerrotan :

Benedica fortuna
Ala encontru hona
Oray beguietan dicit desiracen nuyena

eta bigarrena “*Kontrapasa*”, hau lau lerrotan emana “*Andr’Emili andre gora*” bezala. Ez da dudarik aro berri bat sortu nahi duela Oihenartek euskal letretan. Bere ikuspegia eman du 1665ean Lapurdiko erretor bati idatzitako gutunean eta erabili bere olerkietan. Mester de clerecía delakoaren ondotik Oihenart, laiko jakintsunak nahi du berritu euskal olerkigintza. Gai zen horretarako ikusiz irakurri eta aipatzen dituenak Petrarca eta Ariosto italiarrak, Cervantes, Juan de Mena, Montemayor eta Lope de Vega espainiarrak ahortzi gabe latinezko idazleak. Baina, dirudianez, ez du segidarik izan.

OLERKARITZAREN BI EREDUAK

Lehenbiziko ereduak aspalditik dator Erdi aroko kantuen eta Etxeparek segitu duena XVI. mendean, estrofa edo bertso asonantzia edo errima bakarrekilakoa, kantuaren bitartez zabaldua. Ez dezagun ahanz zer idazten zion Bernard Leheteri *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren eskaintzan : « ... *eta bascoec bercec beçala duten beren lengoagian scribuz cerbait doctrina eta plazer harceco solas eguïteco, cantatzeko eta denbora iragaiteco materia...* » Oihenartek berak azpimarratzen du kantatzen zirela Etxepareren bertsoak : « *que du ton et de lair auquel il faisoit Chanter ses vers...* » (*Art poétique*, 37. or.).

Bide beretik doa Ziburuko Etxeberri sortzen dituelarik mariñelentzat otoitzak “*Biaia ona egiteko*” eta badakigu kantatzen zituztela arrantzaleek. Oihenartek, nahiz gutiesten dituen Etxeberriren bertsoak, onartzen du mariñelen alde zuen amodioari esker idatzi zituela otoitz horiek : « *Je lui ay ouy dire au temps qu’il composoit ses Vers qu’il travaillait principalement pour les mariniers Lesquels les Chantoïnt sur la mer ; Ce qui fait Iuger qu’il Escrivoit plus tost par un motif de Charitté que par aucune ambition ou Vainegloire. Et*

qu'il avoit le zèle de profiter à son prochain que doit avoir un Vritable Ecclesiastique » (*Art poétique*, 39. or.). Bertzalde “Noelak” idatziak ziren Eguberri gauan eta garaian Euskal Herriko elizetan kantatzeko, XXI. mendean kantatzen dela oraindik haren “*Oi Eguberri gaua*”.

Eredu horrek irauten du bertsolarien edo kantu egileen bitartez haientzat puntua baita asonantzia edo errima batekin bururatzen den bertso lerroa. Hortakotz aipatzen dira Iparraldeko bertsolarien edo olerkarien artean lau, bost, zortzi eta bederatzi puntuko bertsoak horiekin adierazten dutela bertsoek dituztela lau, bost, zortzi eta bederatzi lerro edo neurtitz. Batzuetan —bainan ez beti— kantu egileek erraiten dute zein airetan behar diren kantatu idatzi dituzten bertsoak, adibidez lau puntuko airean edo Hegoaldean “*Zortzico ascotan*”. Ohidura hori hedatuko da XIX. mendean, hasiz Salvat Monhorekin eta segituz Antoine d’Abbadie-ren Lore jokoekin.

Iparraldeko eredia da, beraz, bertso lerro bakoitza errima edo asonantziarekin bukatzen dela eta ez dela errimarik gabeko neurtitzik. Hegoaldean, aldiz, espainiol erromantzeari jarraikiz, neurtitz biritxiek bakarrik daukate asonantzia. Orduan, Iparralde eta Hegoaldearen artean sortzen da bertsoen izendatze desberdina nahiz berdinak diren bertsoak.

Iparraldeko lau puntuko bertsoa Hegoaldean deitzen da zortzikoa, bost puntukoa hamarrekoa, izan diten txikiak (7+6) edo (7-6) silabekin, ertainak (8+7) edo (8-7)ekin edo haundiak (10+8) edo (10-8) silabekin. Zortzi eta bederatzi puntukoak berdina deitzen dira Iparraldean eta Hegoaldean nahiz zortzi eta bederatzi lerrotan idatziz Iparraldean, hamabi eta hamalau lerrotan idatziak diren Hegoaldean. Egitura berdina da Euskal Herri guzian eta horretan datza literatura herrikoa, bertsolariena, kantu egileena, azkenean erro edo sustrai berekoak baitira biak. Gutxi ezagutuak dira Iparraldean edo batere XVII. mendean eta bakarrik agertzen zaigu Beñat Mardo izeneko bertsolari edo kantu egile zuberotarra XVIII. mendearen bukaeran ezagutuago izanen delarik Etxahun-Barkoxe XIX. mendearen lehen partean.

Bigarren eredia Iparraldeko mester de clerecía deitu dudana eta Oihenarten ildotik doa, erran nahi baita errima baliatzen duela eta ez asonantzia, errimak apailatuz ezagutzen duten ereduari jarraikiz : errima parekatuak, gurutzatuak edo besarkatuak. Eredu horren lekuko, Iparraldean noski hor daukagu Baionako Euskal Erakustokian gordetzen den eskuizkribua, Patri Urkizuk publikatua 1987an, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)* tituluarekin. Kantu bilduma zaharrena da, gero etorriko direlarik XIX. mendean Chahorena, Francisque Michel-ek eskaintzen duena bere liburu famatuan, Duvoisin-ena, Salaberry-rena. Daukan eranskinean, bakarrik XIX. mendearen hastapeneko kantuak dira, bertze guziak XVII. mendekoak eta XVIII.ekoak dira.

Orotara hogeita bost olerki edo kantu dira eta lau eranskinean. Haien artean hamasei dira errima parekatuak dauzkatena bainan batzuk erabiltzen dute lau neurtitzeko bertsoa 7+6 egiturarekin, beste batzuk bertso berbera 8+7 egitura baliatuz. Horietan ikus daiteke lauko (edo zortziko) txikia eta ertaina erabiltzen dela ez errima bakarrekoa (hau baita herrikoia) errima parekatuekin aldiz.

Halere azpimarratu behar da badirela olerki batzu zortzi silabako neurtitzez eginak errima parekatuekin, eredu herrikoietik kanpo geratzen dena, hala nola “*Ternuako kantua*” (53 ahapaldi hiru zatitan : *Partiada tristea*, *Itsasoco perileak* eta *Ternuaco penak* (eta VIII.a “*Partiada tristea Hortçaicetik*”). Seigarren kantuan, “*Besta ona*”, 1766, agertzen da hamar silabako neurtitza egitura berri batekin. Pentagrama izanez bost lerrotan behar liteke jarri (10-10-5-5-10) errimak azaltzen direla aabbc normarekin. Adibidez :

*Besta huntan cer dirot offrenda
flocatchotan, çaitçunic agrada
suntsun chirolec
eta abalec
ez duquete eguin beguitarte.*

Kopla zaharrak ere badu bere lekua 1798ko bilduman. Lau aldiz agertzen da “*Andren Apaïnduraz*” deritzana, “*Larrunen Bazcal ondoco deserta*” titulu-duna, “*Aldean degu eguna*” (hau gipuzkeraz) eta “*Agur Doña Margarita*” (hau ere) denek egitura berbera daukatena : lau lerrotan idatzia Hegoaldean bezala (8-8-10-8).

Bosgarren kantuak erakusten du nola euskal kantua frantses aire eta doñuekin lotua den. Gauza jakina da. Aita Donostiak jadanik 1931an bere “*Essai d’une bibliographie musicale basque*”, *Bulletin du Musée Basque* aldizkarian agertua, aipatzen ditu hamabost kantu erranez : « *Ces chansons et d’autres peuvent figurer dans n’importe quel répertoire qui n’aura rien de basque. Elles sentent l’air français, la romance française fin XVIII^e siècle.* »

1798ko bilduman *Aleguiaco aphezpicua* tituluarekin, 1766eko kantuak jorratzen du bildumaren egileak diona « *l’évêque imaginaire M. Oxamendy* » eta hortarako beharrezkoa da doñu berezi bat, aski alegera eta hori da “*De tout un peu*” frantses kantuaren airea. Zazpi neurtitzetan egina da, egitura berezia galdatzen du (4-9-4-8-9-9-4) errimak honela banatuz (abaabba). Hain zuzen aire horrekin Salvat Monhok sortuko ditu iraultzaren kontrako kantuak jorratuz Bardozeko apez, gizon eta emazte iraultzaren aldekoak : “*Bardozen glub*”, “*Distrikerat*” deritzan kantuetan. Argi dago Salvat Monhok ez duela sekulan estrofa errima bakarrekoa erabiltzen eta hala gertatzen da olerkari gehienekin, apezak izanez eta moda berria —frantsesa dudarik gabe— segituz. Robin-ek “*Andren aphaïnduraz*” solastatzen delarik zorrozki hauta-

tzen du koplara zaharra, “*Zer egin zare koplari zaharra*” delakoan ahapaldi berezi batekin dabila (11-11-6-6-7-6-5) zazpi neurtitzekoa, adibidez, famatua den ahapaldia :

*Gure Zezili, oi, zer ikuskari !
Beso guzia dabila ageri :
Hezur puska batzu
Beltz eta hiratu,
Jitano bat iduri,
Hain da nardagarri
Gure Zezili.*

Orotara 37 bertso direlarik. Baina “*Aphez juratuak*” aipatzen dituelarik, hain zuzen “*Constitution civile du clergé*” deritzanari zin egin zutenek, hautatzen du lau puntuko bertso txikia errima bakarrekoa, beraz osoki herrikoa. Zertako ote ? Pentsa daiteke, herrikoa izanez, hobeki ezagutua eta kantatua izanen zela jendeen artean. Interesgarria da kasu hau.

Olerkaritzaren bi ereduak agertzen dira jadanik XVIII. mendean : alde batetik olerkari ikasiak errima molde guziak derabiltzanak eta bertzetik bertsoaritzan eta kantu herrikoietan, mende hortako amodiozko kantuetan ahapaldi errima bakarrekoa baliatzen dutenak.

XIX. mendean, nahiz olerkaritzak ezagutuko dituen egun ederrak XVIII. mendeko bi ereduak segitzen dute beren bidea, alde batetik olerkari eskolatuak eta bestetik kantu sortzaile guti edo ez eskolatuak, baina kantu zaharrak dazkitenak eta beraz aire zaharrak. Aire zahar horietan sortuko dituzte bertso berriak; hala aitortzen dute lehen bertsoan :

*Ahaire zahar huntan bi berset berririk.
(Arengaraiko primaren khantoria)*

Mendiague-k dio “*Euskaldun kantak*” delakoan :

*Airea zahar eta kantorea berri
Sujetak ere dira anhitx xarmagarri.*

Eta Jean-Baptiste Elissamburu, olerkari eskolatuak hasten du “*Arbasoak*” deitu olerkia bi neurtitz hauekin :

*Mila bat zortzi ehun eta laueta hogoiean
Bertsu berri hauk eman dira aire zahar batean.*

Mendearen lehenbiziko berrogeita hamar urteetan bi olerkari nagusi agertzen dira. Lehena, lapurtarra, apezka, Camoussarry Ziburukoa (1815-1842). Gazterik hila, 27 urte zituela. Ez du sekulan baliatzen errima bakarreko ahapaldia, errima parekatuak aldiz, gurutzatuak ere, baina atxikitzen du

hamahiru silabako neurtitza (7+6) errima parekatuekin, adibidez “*Hemeretzi urtiak ez ditut oraindik*” olerkian edo bi neurtitzetan ezarriz (7-6-7-6...) “*Menditik nola doa*” olerkian errima gurutzatuekin. Gauza bera gertatzen zaio hamabost silabako neurtitzarekin “*Zumalakarregi*”-ri eskaintzen dion olerkian errima parekatuekin (8+7) eta neurtitza zatituz (8-7-8-7...) errimak gurutzatuz “*Ene liraren aubenak*” olerkian, 1841ean idatzia, urte bat zendu baino lehenago. “*Basa koplariari*” opatzen dizkion koplak zorrotzean hautatzen du lau neurtitzeko ahapaldia, neurtitz bakoitzak zortzi silaba dituela errima gurutzatuekin (abab) :

Boza makur txar batekin
Bertsu txarragoko batzuk
Aire lele batzuekin
Kantatzen obi dauzkiguk.

Halere argi dago ohiko neurtitzak baliatzen dituela (7+6) edo (8+7), batzutan zatikatzen dituela, bainan alde batera uzten duela errima bakarreko ahapaldia lapurtar olerkari erromantikoak, orduko Europako literatur mugimenduan sartuz.

Bertzea zuberotarra da, erromantikoa hori ere, nahiz ez zakien zer zen erromantizismoa, guti eskolan ibilia, bainan bere kezak, penak, nahigabeak, oinazeak eta herrak ere oihukatuz lau kantu eder eta hunkigarrietan : Lau puntuko txikia (7+6) “*Urx’aphal bat*” eta “*Mundian malerusik*” kantuetan, bost puntuko bertso berezia hamalau silabako neurtitzez apaindua (7+7) “*Bi berset dolorusik*” kantuan eta hamazazpi silabako neurtitza (9+8) lau puntuko bertsoan, horretarako hautatu duela “*Abaide delezius*” bat. Hau da Etxahun-Barkoxe (1786-1862). Edozein bertsoan, bederatzi puntukoa “*Eihartxe eta Miñau*”, edo zortzi puntukoa “*Mendiko herrian*”, “*Udoien prozesaren khandoria*”, edo lau puntukoa (bi neurtitz labur, bi luze) maiz erabiltzen duena edo berdin bost puntukoa, hau ere nasaiki baliatu duena, eta sei puntukoa “*Sarrantzeko senthoralak*”, “*Bi ama alhaba*”, “*Gaztalondoko prima*”, ohidurari atxikia zaiola erakusten du Etxahunek errima bakarra erabiliz.

Antoine d’Abbadie-ren Lore jokoekin sortzen da olerkaritzaren aro berri bat, agertzen direlaketz olerkariak, kantu egileak, euskal letretako Mezenasak eskaintzen dituen sarietan : urrezko ontza eta ohorezko makila. Zein gehiagoko horietan parte hartzen dute olerkari eskolatuak eta ere bertze batzuek guti eskolatuak. Alde batetik, eskolatuetan, aurkezten dira Hiribarren bere ordezkariekin, Elissamburu, Larralde medikua, Guilbeau, Adema-Zalduby, eta bertzetik guti eskolatuetan saristatuak izanak diren biga Oxalde eta Dibarrart, ahantzi gabe Etxahun-Barkoxe, kantu bat presentatu zuena 1853an nahiz ez zuen saririk lortu.

Hiribarren (1810-1866) ezagutua da euskal letretan. “*Eskaldunac*” deitu olerki luzean, aztertzen du Euskal Herriaren historia, ohidura zaharrak, hala nola pilota, herri bakoitza eta hari darraikona, orotara 5000 bat neurtitz, erabiltzen duela hamahiru silabako neurtitza, errima parekatuekin. Susmatzen da 1853ko zein gehiagokan Celhabe bardoztarraren gibelean zela Hiribarren eta, hain zuzen, lau neurtitzeko ahapaldiak errima parekatuez egina da. Berdin Dussaut bardoztarrarentzat 1854an. Aldiz 1855ean Laurent Daguerre eta Léon Dajas bardoztarrek hautatzen dute ahapaldi bat “*Hau da ikbazketako*” airearekin, errima bakarria baliatuz sei neurtitzetan. Bi ereduak onartzen ditu atxikiz gehienetan lau puntuko txikiaren neurtitza (7+6).

Elissamburu kapitaina (1828-1891) azaltzen da ere Lore jokoetan. Argi eta garbi dago errima bakarria erabiltzen duela sortu dituen kantuetan, edozein ahapaldietan : lau puntuko txikia (7+6) “*Gazte hiltzera doana*” lehen saria 1860an, “*Apexa eta lorea*” lehen saria 1862an, “*Agur Herriari*” ; lau puntuko ertaina (8+7) “*Zapetaina*”, zortzi puntukoa “*Lehen eta orai*” bai eta ere “*Nere etxea*” hain famatua, oraindik kantatua biltzar guzietan, ahapaldi bereziarekin (8-8-10+8-8-8), “*Maria*” deitu kantua “*Ikazketako mandoa*” airean, “*Xori berriketaria*” lau neurtitzeko ahapalditan (8+8-8+8-9+8-9+8), ahantzi gabe “*Lau andren besta*” neurkera bereziarekin (10-10-20-11-11), bost puntukoan datzala euskal neurtitz luzeena, hogeit hamar silabakoa. Salbuespen gisa “*Maite zaitut*” zortzikoa (8-7-8-7-8-7-8-7) egiturarekin errima gurutzatuak (ab ab cd cd). Ohiko olerkaritzak eskaintzen zizkion ahalez baliatzen da Jean-Baptiste Elissamburu eta, nahiz eskolatua, tradizioari emaiten dio lehentasuna.

Larralde medikua (1804-1870), bertsolari familia batetik dator. Haren aita hazpandarrak publikatu zituen zenbait bertso Baionako kaseta batean eta Bordaxuri galerianoa ere leinu berekoa zen. Lore jokoetan saristatua izana da 1856an “*Herriko besta*”-rekin, 1859an “*Ama haurraren sehaskan lobakartzen*” olerkiarekin, 1864an “*Mutil zaharra*” kantuarekin. Ohorezko saria ere lortu zuen 1865ean “*Eria ezagutzaz bethea errexinolarentzat*” olerkiarentzat. Bertze batzu ere aurkeztu zituen Lore jokoetan saririk gabe egon zirenak. Olerki gehienetan hamahiru silabako neurtitza derabila bainan zatiturik (8-7-8-7-8-7-8-7) zortzi neurtitzeko ahapaldietan eta gurutzatzen ditu errimak (ab ab cd cd). “*Bioleta*” deritzan olerkian 1862an lau puntuko txikia hautatzen du (7+6) errima parekatuekin. Haren obran, beraz, ez da sekulan agertzen errima bakarreko ahapaldirik.

Martin Guilbeau medikua (1839-1912) ere azaltzen da Lore jokoetan 1858tik eta 1872 arte. Donibane Lohizuneko auzapez izan zen eta “gorri” gisa ezagutua, antolatu zituen beste Lore joko batzu ez baitzen ados Antoine d’Abbadie eta haren inguruan ziren bertso epaileekin. Denetarik aurki daiteke bere neurtzeko moldean : lau puntuko txikia (7+6) errima parekatuekin edo gurutzatuekin ; sei puntukoa (8-8-9-8-9-8) nahasten dituela errima parekatuak

eta gurutzatuak (aa bc bc), bai eta ere lau puntuko txikia (7+6) errima bakarrekin “*Ene maiterena*” eta “*Einadak*” kantuetan. Horrek erakusten du ez duela batere ukatzen hitzen neurtzeko arbasoek utzi duten legea.

Iparraldeko olerkari haundienetarik Elissambururekin —eta egia erran, estudioak eginak zituzten elgarrekin Larresoroko seminario ttipian— Gratien Adema-Zalduby dugu apez senperrarra (1828-1907). Lore jokoetan agertu zen jadanik bikario zelarik Hazparden eta luzaz segitu erabiliz hanitz izen-orde. Alex Bengoetxeak argitaratu du klasikoetan haren obra : 31 kantikak ez baitu sekulan ahantzi apezza zela, 18 alegia Artzain Beltxarenak, eta 20 bat olerki haien artean batzu Errepublikaren eta “gorri”-en kontrakoak eta ere kantu “abertzaleak”, hala nola “*Gauden gu eskualdun*” kantu famatua bere errepika ezin ahantzizkoa :

*Zazpi Eskual Herriek bat egin dezagun
Guziak bethi bethi, gauden gu Eskualdun.*

Olerkaritzak emaiten dizkion ahal guziak baliatzen ditu, bainan lehentasuna emaiten dio errima bakarreko ahapaldiari. Alabainan 71 olerkietarik 48 dira errima bakarrekoak, gehiengo nagusia beraz. Ohargarria da nola alegia guzietan baliatzen duen lau puntuko txikia (7+6) “*Bildotsa eta otsoa*” ukan zuelarik lehen saria 1873an. Ohargarria ere kantatzeko eginak dituela alegiak emanez zein airetan behar zen kantatu. Askotan “*Aire zaharra*” edo “*Aire ezagutua*”, bertze batzutan “*Iruten ari nuzu*” edo “*Atharratze jauregian*”. Ademarentzat olerkia emaiten da kantuz, hitzak lotuz kantuari. Haren obra osoa kantuaren bitartez hedatu da Euskal Herrian. Aski da irakurtzea nola jorratzen dituen hitzik gabeko kantua xaramelatzen dutenak, hain zuzen alegien “*Aintzin hitzak*” deritzan kantuan, hau aldiz sei puntuko ahapalditan errimak gurutzatuz:

*Askoren kanta da bethi
Tilili-ta-Talala :
Hitz bat gabe, aire bati
Jo zak eman ahala.
Astoak ere badaki
Orroz hala hala !*

Alegia kantatuekin ez du segitzen alegia egileen ohidura, Frantzian Espainian bezala eginak baitziren erraiteko eta ez kantatzeko, ez eta ere Iparraldean La Fontaine-n alegiak itzuli zituztenak euskarara Archu zuberotarrak eta Goyetche lapurtarrak erabiltzen zituztela errima parekatuak edo gurutzatuak.

Beste kantuetan, izan diten kantikak ala profanoak, 23 orotara, aurki daitezke bertso bereziak, adibidez “*Aingeruak*” kantuan neurketa honekin (9-8-

9-8-9-8-9-8) errima gurutzatuekin edo “*Eguberri*” eliza kantuan Artzainen eta Aingeruen elkarrizketarekin, artzainen ahapaldiak errima besarkatuz egina, aingeruenak aldiz sei puntukoak hiru neurtitz errima batekin eta bertze hiruak bertze batekin. “*Eskualdunak*” deritzan kantuak eskaintzen du egitura arraroa: hamabi neurtitzeko ahapaldiak neurtitzak luzetasunez ezberdinak (10-8-10-8-7-9-9-8-10-8-10-8) errima gurutzatuak eta parekatuak erabiliz ab ab bb ab ab ab. Argi dago Ademarentzat eskolak eman zion jakituriaz baliatzen zela ahapaldi errimadunetan bainan hobesten zuela arbasoek utzitako ondarea.

Lore jokoetan saristatuak izan direnetan badira ere kantu egile eskola gutikoak, horrek erakusten duela maila onera hurbildu direla. Hauta daitezke biga bederen, biak bertsolariak, erran nahi baita, bertsolari gisa erabiltzen zituztela ohiko ahapaldiak, lau puntukoak, bost puntukoak eta zortzi edo bederatzi puntukoak.

Oxalde (1814-1897) bidarratarra guarda eta postari izana, toberetako fama haundiko bertsolaria Lore jokoetan parte hartu zuen. Lehen saria lortzen du 1868an “*Soldado ondoa*” kantuarekin, bigarren saria 1878an “*Khilo-egilelea*”-ren bertsoekin, jakinik ez zela lehen saririk eman urte hartan. Oxobik bildu ditu Oxalderen kantu gehienak. Bildu dituen hemezortziek errima bakarreko ahapaldiak dauzkate, erdia lau puntuko txikian (7+6), bat lau puntuko ertainean (8+7) “*Madalen Larralde*”-rena, beste bat “*Lurreko ene bizia*” hautatuz doñutzat Elissambururen “*Ikusten duzu goizean*”. Oraindik kantatzen da haren “*Xanxundegiko xakurra*” sei puntukoa, zortzi bertso lerroz egina eta Ademak pixka bat aldatua ezarriz “*Mehetegi*” Xanxundegi-ren ordeztu eta bertso batzu baztertuz, beste batzu erantsiz. Bainan gaia, egiazki, Oxalderena da. “*Khilo-egilearen kantuak*”, lau puntukoa izanik ere biltzen ditu lau neurtitz ezberdinak egitura honekin (7+6-7+6-5-7+6), airea delarik “*Kaiolako xoriak alegera dira*”. Sei puntukoa ere hautatzen du “*Zaldi zaharra*” aipatzeko, zortzi silabako neurtitzekin eta bertze ahapaldi batzu erabiltzen ditu hartuz airezat edo “*Iduzki denean*” edo “*Uso xuria errazu*” eta “*Zahar gazten arteko parabola*” bederatzi puntuko bertsoetan egina da. Kantu egile herrikoia, ohi-dura zaharrari atxikia.

Piarres Ibarrart ere ongi ezagutua da XIX. mendearen bigarren partean. Lapurdiko Jatsun sortua 1838an, Baigorriko xantrea izan da luzaz eta ofizioz zapataina zen. Baionan hil zen 1919an adin ederrean. Piarres Lafitte jaun kalonje euskaltzainak bildu zuen Ibarrarten obra gehiena, orotara 18 kantu. Denak errima bakarrekoak dira salbu bat : “*Sotoko ophorra*”. Ulert errexerzertako ez duen erabili errima bakarra. Hain zuzen sei puntuko ahapaldi guziak bukatzen ditu « *sotoko ophorra* » hitzekin eta beraz doa bosgarren neurtizarekin, hartu duelarik airezat “*Adios izar ederra ! Adios izarra !*” Ahapaldien egitura da (7+6-7+6-5-5-6-7+6), errima parekatuz apaindua (aa bb cc). Lau puntuko txikiak badu arrakasta Ibarrartentzat hamar kantu hola eginik. Bertze

bat badu “*Gernikako arbola*” doñuarekin, bainan bost neurtizekoa da. Pentsa daiteke zortzikoaren azken bi neurtizat errepikatzen zirela. Lau puntuko ertaina (8+7) doa “*Jakintsunaren arabera*” airearekin, hiru kantu sortuz : “*Eskual Herria eta eskuara*”, “*Aitaso baten solasak bere ilobako xumeari*” eta “*Eskualdun soldadoak*” 1905ean emana Austerlitzeko gudukaren mendeurrenkarietara. Bost puntuko nagusia (10+8) erabiltzen du “*Artzaintsa mendian*” deritzan kantuan. “*Eztei ederrak Eskual Herrian*” deritzan kantuan sei puntuko ahapaldiaz baliatzen da neurtitzak hamar silabakoak direlarik. Airea : “*Ezpeleta herrian*”. Ahapaldi berezia guti erabilia. Lauko txikian baditu “*Lo, lo ene maitea*” airearekin hiru kantu eginik. Ohargarria da zeren Larralde medikuaren kantu bat baita lehen saria lortu zuena 1859an. Dudarik gabe arrakasta haundia ukan zuen kantu horrek. Larralde medikuaren obra aztertzean ikusi dugu ez duela baliatzen errima bakarreko ahapaldirik eta “*Lo, lo ene maitea*” kantuak zortzi neurtitzeko ahapaldiekin egina dela aldikatuz zazpi eta sei silabako neurtitzat errimak gurutzatuz :

Lo ! Lo ! nere maitea,
Lo ! ni naiz zurekin,
Lo ! Lo ! paregabea,
Nigarrik ez egin.
Goizegi da munduko
Gelditzen bazira
Nigarretan urtzeko
Baduzu denbora !

Ez da dudarik Ibarrartek ezagutzen zuela kantua, bainan ez da ohartu nola egina zen. Hartu du airea eta harentzat lau puntuko txikia zen (7+6) eta hala idatzi “*Aita zuhurra eta hirur semeak*”, “*Udazkena*” eta “*Orgogozo jaun-anderei*” eskaini duen kantua.

Adibide horrekin ulert daiteke zer diferentzia den olerkari eskolatuen eta guti eskolatuen artean, bainan, azkenean, oinarri berbera daukate neurtitzetan baliatzen baitituzte erabilienak (7+6 edo 7-6), (8+7 edo 8-7), (9+8 edo 9-8), (10+8 edo 10-8), errima bakarreko ahapaldiak edo errima haniztasunetzko estrofak.

Ez dirudi aldaketak izanen direla XX. mendeko lehen lau hamarkadetan II. munduko gerla aitzin. Barbier, Oxobi, Zerbitzari, Lafitte beren olerkietan agertzen dira erakutsiz ahapaldi errima bakarrekoa dela nagusi. Haien artean Oxobi da, bere alegietan eta bertze bertsutan lerratzen dena errima parekatuetara edo gurutzatueta.

Horretan utziz gure azterketa, argi dago ohiko ahapaldi errima bakarrekoa baztertzen dutela XVII. mendean mester de clerecía-ko olerkariak, asonantzia utziz eta frantses eredua segituz bereganatzen dutela errima bere alda-

era guziekin. Bere iritzia eman du Oihenartek, denetan jakintsunena eta erabili bere olerkietan. Anartean bi ereduak bizi dira XVIII. eta XIX. mendeetan, bat , herrikoia, bertsolariena, ahozkoa eta beraz ezkutua, gordea, berriz agertzen dena bereziki XIX. mendean Etxahun, Oxalde, Ibarrart eta bertze hantzekin ; denbora berean olerkari eskolatuak segitzen dute XVII. mendean ideki zen ildoan. Halere ageri da badirela haien artean ahapaldi errima bakarreko erabiltzen dutenak, bi ereduak onartuz. Elissamburu eta Adema deitzen dira eta idatzi dituzten olerki edo kantuak bizi dira oraindik, olerkari onak zirela seinale.